


Herpes birusaren eta alzhemerraren arteko erlazioa

Azken urteotan, hainbat ikerketak frogatu dute bigoela erlazioa herpes birusaren eta alzhemerraren artean. Alabaina, hain birus ohikoa denez (ezpainetako herpesa eragiten duen birus bera da, HSV1), zientzialariek zuhurtziaz hartu dute, eta sakan ikertu nahi izan dute erlazio hori, atzean egon daitekeen mekanismoa argitzeko.

Frontiers in Aging Neuroscience aldizkarian, ikerketa-lerro horretan lortu diren emaitzak errepasatu eta ondorioak atera dituzte, eta berretsi dute HSV1 birusa alzhemerraren arrisku-faktore nagusietako bat dela eta gene batekin lotuta dagoela: apolipoproteina E-aren genea (APOE-ε4).


Hala, APOE-ε4 genea eta garunean birusa duten pertsonetan, alzhemerra garatzeko arriskua ez bat ez bestea ez dutenetan baino 12 aldiz handiagoa da.

Hori guztia ikusita, antibiralak alzhemerra tratatzeko eraginkorrak izan daitezkeela proposatu dute ikertzaileek. Bide horretatik, [eskala handiko lehen azterketa egin dute](#) Taiwanen, 33.500 pertsonarekin, eta emaitzak itxaropentsuak dira, herpesaren aurkako tratamendua hartzeak alzhemerra garatzeko arriskua gutxitzen duela ondorioztatu baitute. ●



Herpes birus arruntaren eta alzhemerraren arteko erlazioa berretsi dute. Horrez gain, tratatzeko bide bat ere proposatu dute.

Mitosiaren proteinen atlas dinamikoa argitaratu dute



Zelula banatzean parte hartzen duten proteinen mapa osatu dute, 4Dn. ARG.: Aleksandra Krolik/EMBL

Zelula banatzeko prozesuan parte hartzen duten proteinen lehen atlas dinamikoa osatu dute. Biologia Molekularreko Europako Laborategian egin dute, eta ikertzaile guztien eskura jarri dute.

Hain zuzen ere, proteinak dira mitosia, zelula banatzeko prozesua, aurrera eramaten dutenak. Prozesu konplexua da, eta proteinek sarri taldeka egiten dute lan hori. Orain arte, laborategietan proteinei banaka jarraitu izan diete. Atlasak, berriz, proteina guztiei egiten die jarraipena, denbora errealean, eta ikertzaileek aukera dute nahi dituzten proteinak aztertzeko. [Mitotic Cell Atlas](#) deitu diote eta *Nature* aldizkarian eman dute haren berri. ●



Albiste gehiago
webgunean